ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko urriaren 23a, asteazkena • 123 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 651/2019 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea irailaren 17ko 580/2019 Erabakiaren I. eranskinean (Emandako dirulaguntzak) ageri diren huts materialak zuzentzeari, zeinaren bidez onetsi baitzen energia jasangarritasuneko ekintzak bultzatzeko laguntza lerro bat emateko 2019-2020 deialdiaren laguntzak ematea

2019ko irailaren 30ean, Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 17ko 580/2019 Erabakia argitaratu zen ALHAOn, zeinaren bidez onesten baita esleitzea 2019-2020ko ekitaldirako energia jasangarritasuneko ekintzak bultzatzeko dirulaguntza lerro bat, eta berresleitzea hasieran aurreikusitako zenbatekoa: 2019ko zenbatekoa 16.550,14 euro handitzea eta 2020ko zenbatekoa 50.946,97 euro murriztea.

Erabaki horren I. eranskinean, erakunde bakoitzari emaniko dirulaguntzak zehazten dira.

Huts hauek antzeman dira diruz lagundutako jardun motak definitzean:

Ibargurengo Administrazio Batzarraren kasuan, "Kargagunea instalatzea" eskatzen du eta ez "Ibilgailu elektrikoetarako bi karga puntu instalatzea".

Bastidako Udalaren kasuan, ortografia huts bat dago gaztelaniaz, hauxe eskatzen baitu: "Instalación de dos puntos de recarga para vehículos eléctricos."

Hortaz, Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 17ko 580/2019 Erabakiaren I. eranskina zuzendu behar da, txosten honetan jasotzen den bezala, Ibargurengo Administrazio Batzarraren eta Bastidako Udalaren kasuetan.

Hori guztia 30/2015 Legearen 109.2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, non hau xedatzen baita: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak."

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea energia jasangarritasuneko ekintzak bultzatzeko laguntza lerro bat emateko 2019-2020 deialdiko I. eranskinean (Emandako dirulaguntzak) ageri diren huts materialak zuzentzeari, eta honela idatzita geldituko dira:

Ibargurengo Administrazio Batzarra

Hau esan beharrean: Ibilgailu elektrikoetarako bi karga puntu instalatzea.

Beste hau esan behar du: Kargagunea instalatzea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Bastidako Udala

Hau esan beharrean: Ibilgailu elektrikoetarako bi karga puntu instalatzea.

Beste hau esan behar du: Ibilgailu elektrikoetarako bi karga puntu instalatzea.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da.

Gasteiz, 2019ko urriaren 15a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.10.23 05:31:29 Z